

EUSKAL ASTEA 2022 - ZARAUTZ
XXXIV. AURRESKU TXAPELKETA (GIPUZKOAR ERARA)

Eguna: **irailaren 3a, larunbata**
Ordua: **11:30**
Lekua: **Lege Zaharren enparantza**

OINARRIAK

1. Txapelketa honetan parte hartzeko, 15 urte beteta eduki behar dira (2022an betetzen dituenak ere parte har dezake).

2. Gehienez hemezortzi dantzariak parte hartu ahal izango dute txapelketan. Dantzari gehiagok ematen badute izena, zozketa egingo da **abuztuaren 26an (ostirala, eguerdiko 13:00ean)**, Euskal Dantzarien Biltzarraren Gipuzkoako egoitzan. Zozketatik kanpo geratuko dira Euskadiko Txapelketako lehen 2 sarituak eta herriko dantzariak.

Ondoren, egun horretan bertan, dantzari bakoitzak txapelketan zein hurrenkeran dantzatuko duen zozkatuko da.

3. Hauek izango dira dantzariak eskaini beharko dituzten dantzak:

- Aurkez aurke edo desafioa. Gipuzkoako edozein izan daiteke, dantzariak izena emateko orduan bere jatorria adierazi beharko du.
- Soinu Zaharra: Koreografi libreko dantza izan arren, dantzariak bere koreografia osatzeko garaian, Gipuzkoako dantzen estrukturak dituzten arauak bete behar izango dituzte (simetria eta konpasen neurria).

Hiru hauen artean dantzariak aurretik aukeratzen duena:

EHUN DUKAT: 8 – 8 – 8 – 3 – 6 – 2 – 4 – 8 – 8 – 8 – 3 – 6 – 2 – 4 – 5 – 4 – 5 – 4

EHUN TA BIKOA: 4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4 – 4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4 – 6 – 6 – 6 – 6 – 4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4

GRAZIANA: 8 – 8 – 8 – 8 – 6 – 4 – 6 – 4 – 8 – 8 – 3 – 4 – 4 – 3 – 4 – 4 – 3 – 4 – 3 – 4

- Zortzikoa: Dantzariak bere koreografia osatzeko garaian, Gipuzkoako dantzen estrukturak dituzten arauak bete behar izango dituzte (simetria eta konpasen neurria).

4. Dantzariak euskal usadiora jantzita joan beharko dute.

5. Txapelketaren egunean jakinaraziko da epaimahaiaren osaera; epaimahaiak hartutako erabakiak behin betikoak izango dira.

6. Izena emateko lekua: Euskal Dantzarien Biltzarraren Gipuzkoako egoitza

Telefonoa: 943-289 848

Helbide elektronikoa: gipuzkoakoedb@gmail.com

Epea: **abuztuaren 25eko 20:00ak baino lehen**

7. Sariak:

1. saria. 130 euro, txapela eta trofeoa

2. saria. 110 euro eta trofeoa

3. saria. 90 euro

Sari berezia herriko dantzari onenari

8. Gainontzeko dantzariak 60 euroko dieta izango dute.



ZARAUZKO UDALA

9. Antolakuntzak eskubidea izango du edozein ustekaberen aurrean hartu beharreko erabakiak hartzeko.